



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

AMANKOMUNAZGOKO ADIKZIOEN PRENBENTZIORAKO ZERBITZUAK ERRETZEARI UZTEKO KURTSO BERRI BI ANTOLATUKO DITU

Ikastaroak bederatzi saiotan burutuko dira. Urrian hasiko dira, bat Elorrion eta bestea Durangon.

Interesatuta dauden pertsonak izena eman dezakete datorren urriaren 11 baino lehen, 94 620 05 20 telefonora deituz edota prevencion.mdurango@bizkaia.org helbidean.

Durangon, 2019ko irailaren 23an. Durangaldeko Amankomunazgoaren Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuak erretzeari uzteko kurtso berri bi antolatu ditu. Urrian, bat goizez 10,00etatik 11,30etara Elorrion eta bestea arratsaldean 18:30etatik 20:00etara Durangon.

Ikastaro bakoitzak 60-90 minutuko bederatzi saio izango ditu eta 15 edo 20 pertsonen kopurua izango du. Batzarrak astero izango dira eta aditu batek eramango du taldea. Kurtsoa amaitu ostean, bederatzi saio egin eta gero, jarraipen bilera bat egingo da hiru hilabetera.

Interesatuak informazio gehiago eskatu edo izena eman dezakete Durangon, Askatasun Etorbidean 11 behean dagoen Adikzioen Prebentziorako Zerbitzuan, 94 620 05 20 telefonora deituz edo email bat bidaliz prevencion.mdurango@bizkaia.org helbidera.

Kurtsuak dohainik izango dira. Lehenengo egunean joatea derrigorrezkoa da, eta ezinbesteko arrazoi bategatik ez bada, joaten ez diren pertsonen baxa emango zaie.

Eskatzen den baldintza bakarra “tabakoari uzteko benetan konbentziturik egotea da” azaldu dute Amankomunazgoko Zerbitzutik.